

Ibaia

Uxue Alberdik

Usurbilgo hirigintza
feminista fabulatzen du

Zirriborroak eta gero

Gipuzkoako bilduma #1



ZIRRIBORROAK ETA GERO

Ekoizlea

Azala Kreaio Espazioa

Proiektuaren ideia eta sorkuntza

Arantxa Mendiarrat, Ixiar Rozas, Idoia Zabaleta

Aholkulari zientifikoa

Unai Pascual

Koordinazioa

Arrate Hidalgo

Bildumaren diseinua

Ibon Sáenz de Olazagoitia

Komunikazioa

Teklak. Komunikazio eta Audientzien Estudioa

Webgunea

La Debacle

GIPUZKOAKO BILDUMA #1

Idazlea

Uxue Alberdi

Alternatiba

Usurbilgo hirigintza feminista

Ilustratzailea

Paula Estévez

Zuzentzailea

Amaia Apalauza

Grabazioa eta soinu edizioa

Eñaut Elorrieta

Grabazioko ahotsa

Uxue Alberdi

Banatzailea

NOIZ

Inprimaketa

Gráficas Dosbi

Lehen edizioa

2021eko ekaina, Lasierri (Araba)

Erakunde laguntzaile nagusia

Kutxa Fundazioa

Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura, Turismo, Gazteria eta Kirol Departamentua

Entitate laguntzaileak

Diario de Noticias de Álava

Hala Bedi Irratia

Kaxilda

Lege-gordailua: LG G 00288-2021

Lan hau Creative Commons-eko Aitorpen-EzKomertziala-PartekatuBerdin Nazioarteko 4.0 lizentziaren pean dago (CC BY-NC-SA 4.0).

Ibaia

Kontakizunak eta fabulak
mundu posibleei buruz

zirriborroaketagero.net



*Orainean gelditu nahi dut, orainean bizi;
sekula iragan ez den iraganaren zama sentituz
eta dagoeneko hemen den etorkizunaren zelatan.*

Donna Haraway

Ez dago solistarik, akonpainamendua besterik ez.

Fred Moten

I

Zapatilak eta beroki arina jantzi, atea zarratu, eta hirugarren solairuko ilunantza zeharkatuta iritsi zen Luz Izaroren etxeraino. Atea jo gabe, zain gelditu zen. Eskailera-begitik haur baten lantu motela entzuten zen.

Igogailua hartu zuten. Haurra bularraren kontra urrumatzen ari zen Rober egongelan; titia kentzen laguntzen ari zitzaion Mariri, bigarren pisuko bizilagunari. Diosal apala egin zien, hatz txikiaren punta umearen ahoan preso.

Hego haizeak izpiliku usaina zekarren. Etxepeko plaza isilik, aterpean bilduta zeuden bizikletak eta jostailuak. Gaueroko paseoen kontura, oreka erritmikoa lortua zuten bi atsoek. Mirko irakasle zaharra irakurtzen ari zen bentanapeko kulunkaulkian. Bintu okinaren etxabetik argi apal bat hedatzen zen bidera. Lur eta hareazko kamioan barrena ibaiertzeko zidorrera egin zuten baratze komunaletatik aurrera. Hontz zuriaren hegada seinalatu zion Izarok, kanpandorrearen inguruan; atzetik jarraitu zien, arima nagi batek nola.

Ia errioaren mailaraino jaitsiak ziren. Ez zen argirik ikusten Troia-ko auzoan. Luzen aitona angulari ibilia zen bazterrotan, egunez hondar saltzaile eta gauez angulari, ala txiki batekin eta bahea herrestan. «Eta ni, nork *kuidatuko* nau ni?». Errioaren murmurioak hildakoen bozak kantatzen zizkion Luzi. Urteetan eraman zuen erruaren lokatza,

zingira bularrean, aita alarguna eta aitona ezindua herrian utzita Madrila alde egin zuelarik, sinistuta bizitzako hautuen bi muturretan zeudela inor *kuidatzea* eta arkitekto izatea.

—Noiztik ez daukan Odeiren berririk?

Zeinu hizkuntzan mintzo ziren bi andreak; Izaro gorra zen jaiotzez. Madril en ezagutu zuten elkar, fakultateko talde feministan. Erantzun bat nola, paduraren arnasotsa aditu zuen Luzek: mareabehera. Milioika burbuila ibai hondoko lokatzetan hatsanka. Errioa biziberritzen hasia zen jarduera industrialaren erregulatu zenetik. Oinez jarraitu zuten, korrontearen kontra. Gaztainondo baten adarrean pausatu zen hontza. Urrunean, fabriken auzunea begiztatu zuten, partez bizitoki bilakatua orain. Itzalak bereizten ziren pare bat leihotan. Artista gautarrek ere lanean behar zuten Elkarlan Gunean.

—Jarri dun hirekin harremanetan?

—Duela aste batzuk. Baliteken bisitan etortzea. Baimena lortu zain zegoan.

Isilik gelditu zen Luz. Batzuetan eraikintzat hartzen zuen bere burua.

—Haren ama haiz, Luz.

Eskuineko hatz erakusleaz eta luzeaz masail bat ukitu zuen, eta gero bestea. Luzek uste zuen *ama* ezin zela izan barrutik itxi ezin den edifizio bat. Etxe guztiei opa zizkien ihesbidea bezala krisketa.

—Laurogeita sei urte zeuzkanat, Izaro.

Urrats batzuk egin zituen aurrera. Gero, lagunarengana jiratuta, esan zion:

—Hoa Babiloniaraino. Hemen itxarongo dinat, hotzik ez dun gaur.

Babilonia baserri okupatua handik pare bat kilometrora zegoen. Errioa zabaldu egiten zen pare hartan, eta uharte bat sortzen ibaiaren erdian. Gazteek lantzen zituzten orain irlako lurrak, eta kooperatiba bat martxan jarria zuten Babiloniako bebaruan. Harantz egin zuen andrezaharrak, arintasun miragarritz. Urubiaren kantuak ez zion zirkinik eragin.

Izaro aldendu orduko, bizkarra urki baten kontra bermatu, gonak doi bat altxatu, hankak zabaldu, eta zutik pixa egin zuen Luzek. Lurrun beroa sentitu zuen izterretan gora. Ikusi ez arren ondo ezagutzen zuen paisaiaren errepasoa egin zuen. Ingurua izendatzeak sosegatzen laguntzen zion: otoitz bat bezala zerrendatu zituen ihitza, haltzak eta lezkadia, zumar hostozabalak eta zumar hostotxikiak, haran hondoe-tako hariztiak, intxaurrondo beltz bakanak, gaztainondoak, maldetako

artelatza, urkia, hurritza, xarma. Pikondoa izendatu, eta pikuen usain latza aditu zuen. Gero, ibaiertzeko bankuan eserita arnasa hartzen zuen bitartean, gaueko trena entzun zuen herrira iristen eta herritik urruntzen.

II

Ilunpeko paseoetatik bueltan, Izarorekin eta bizilagun goiztiarrekin gosaltzen zuen Luzek. Atsegingarriak ziren bizikideen kalaka eta uraren borborra, xigorkien eta fruituen urrina. Egunkariak eta aldizkariak trukutzen zituzten; zenbait edizioen harpidedunak ziren etxepean. Paperak bigarren bizialdi bat izan zuen biztanleria deshiritartzearekin batera: jendearentzako zegoen jendeak ez zuen uneoro estimula zezaten behar; aski zuen paperaren laztan sotila, tintaren usaina; sendagarria zen orria pasatzeko keinua bera. Elkarrekin pentsatzeko trebetasun linguistiko eta sentesorialak garatu zituzten, sukaldeko errezetak trukatu. Txirikordan, *aditu errotatiboaren sistema* erabiltzen zuten: lantzean bati egokitzen zitzaion zekienaz ohartu eta besteei ematea. Atzean utzia zuten *post-it aroa*; ideia konplexuak ez zitzaizkien koloretako paper zatietan kabitzen. Hormetako mapa kontzeptualek ez zieten gorputzean behera egiten; bazekiten inon egotekotan ñabarduretan zegoela jakituria, eta aditzen ikasi zuten, hitz horren bost zentzuetan: entzuten, ulertzen, usaintzen, sentitzen, adosten. Asmo jakinik gabe ere aritzen ziren solasean. Ezertarako balio ez duten gauzen garrantziaz jabetuta, hizketarako denbora eta artea ez ziren mehe saltzen: auzoan, beste ezeren gainetik estimatzen zuten mintzakide ona.

Pikaolara begiratu zuen Luzek, pareko etxebizitzara: leihoen atzean esnatzen ari ziren auzotarrak. Hurrup egin zion kafeari. Berrogei urte lehenago, proiektuaren hasieran, eztabaida luzeak izan zituzten leihoen tamainari buruz. Ez zitzaien gutxi kostatu barruaren eta kanpoaren arteko harremana adostea. «Intimitate hemorragia bat» proposatzea leporatu zien zenbaitek. Izarok –hatz erakusleak begietan– elkar ikustearen garrantziaz eman zuen hitzaldia gogoangarria izan zen. Zeinu hizkuntzan esan behar izan zien hurkoari entzutea ere oinarritzkoa zela. Orduan, Izarorekin ahaztuta, interpretari oldartu zitzaizkion herritar zenbait. Ez zen arraroa sasoi hartan. Interpretari egin zioten kontra, argudiatuz gorra izanda erraza zela zarata defendatzea. Izarok pazientzia handiz azaldu zien XX. mendeko etxe

burgeseko eskailerak ehun urte baino ez zituela, norberaren etxetik txintik ez ateratzearen ideia zuzenean zegoela norbanako produktiboen eraikuntzari lotua, elkar sentitzeko hil edo bizikoa zela elkarri *enbarazu* pixka bat egitea. Ez traba, ez molestia, ez eragozpen: *enbarazu* itzuli zuen interpreteak, Luzen jaiotetxean esaten zen bezala: «*Kendu hadi enbarazutik, neska*».

Gosaritakoak garbitu, eta lo kuluxka egitera erretiratu zen Luz. Egunean lau orduko lanaldia arautu zenetik, desagertu egin zen zortzi ordu segidan lo egiteko inposizioa, eta ohikoak ziren kuluxkak. Luzek zahartzaroan errekuferatu zituen goizerdiko loaldiak, amaberria zen garaitik albora utziak. Madrilen, beharrezkoak izaten zituen bizirik irauteko: bazter orduetan egiten zuen lo, bazter orduetan lan; denbora, oro har, bazter orduen konkista saiakera bilakatu zitzaiola ohartu zen egun batean.

Eskaileretan gora, Marirekin eta haur txikiarekin egin zuen topo. Hilerri-lili olioaren eta esne hartzituaren usaina zerion umearen mamiari. Luzek izpiliku olio tanta bat jartzen zuen bularrean lotarako; hala egiten zuen erdituz geroztik. Baziren berrogeita hemeretzi urte Odei jaio zela, eta ez zekien horren esanahia osoki ulertzen. Ihes egingen zion zerbaitek; haizea sartzen zitzaion saiheitsartean. Pentsamendu antropozentrikotik urruntzeak on egiten zion. Gogoa gurasoen eta kumeen loturetatik libre bizi ziren musker, tximeleta eta hegaztietan jartzeak sosegatzen zuen. Agian ez zen sekula prest egon gizon baten ama izateko. Agian ez zuen zentzuz barneratu semea egun batean gizon egingo zela, ez zela sekula emakume egingo, eta zitekeena zela arkitektura kultural hartarako materialak etxetik kanpo bilatzen saiatzea. Ez zuen garaiz pentsatu; lanpetuegi egon zen akaso, edo baliteke, sinpleki, zenbait gauza ezin pentsatuzkoak izatea gertatu aurretik.

Herrira itzuli zenean, nerabe bat baino ez zen Odei; makulu bat ere bai Luzentzat, ez baitzitzaiokeen batere samurra gertatuko hezurak, besterik gabe, aspaldi atzean utzitako jaioterrian plantatzea hazteko inor izan gabe, bere burua soilik ordezkatzuz. Odei umeagoa izatera, intsektuak pinuen erretxinetan harrapatzen erakutsiko ziokeen, igel-
-euria entzuten, ahabi-zukuz ezpainak margotzen; edo, agian, idealizazio bat baino ez zen hura guztia, baina, dena dela, Odeik ez zuen ipurtargien fosforeszentziarekin liluratzeko adinik: Luzen umezaroko lurrak ez zion semeari sehaska-kantarik abesten. Oroitzapenek bereizten zituzten bi gogoren jabe ziren.

Inoizka, atzera begiratzen zuen Luzek. Ez zuen asko usteko tradizioak jotako eskualde hura bilakatuko zenik hirigintza feministaren erreferente; are gutxiago berari deituko ziotenik proiektuaren gidaritza hartzeko. Eskerrak laster batu zitzairen Izaro, bere irla izenaren kontrako tenperamentu sozialarekin lur zatiak batzera. Orduan errazagoa izan zen dena lanean eta etxean, Izarok bai baitzeukan arintasun bat eta Odeirekiko antze bat Luzek faltan zuena.

Begiak zabaldu zituenean, ibiltzeko premia sentitu zuen oster. Azken-aurreko fasean zegoela esaten zion bere buruari: pixkanaka zingiraz, basoez, bideez despeditzen ari zen. Ez zen ariketa dramatiko; betiko zidorretan oinez, abegi egingo zion lurra zapaltzen zuen. Intsektuei adi egiten zituen urratsak; norekin batera bizi zen pentsatzea nahitaezkoa zitzaion norekin batera hilko zen ulertzeko. Akaso, bokalean behera, itsasoraino iritsiko zen egunen batean. Leihotik, haizea ikusi zuen ezkiaren hostaje. Jaka eta oihalezko kapelua jantzi zituen. Batzarrerako ordua zen; elizan behar zuten zozketan hautaturiko herritarrek. Mendekotasun handiko pertsonen zaintza zen auzia. Luzek gogoratzen zuenez, ziklikoki errepikatzen zen gaia.

Txirikordatik irten zen. Euren zen herriko etxebizitza kolaboratiboetan zaharrena, eta Pikaola eta Txulunbre etxeak igaro eta ezkerretara egin zuen, Basatxotik. Basatxon, zaharrak bakarrik bizi ziren; *paxatxo* deitzen zioten gazteek, burlaizez. Han bildu ziren belaunaldi arteko etxebizitzetatik independizaturiko adinekoak eta LGBTIQ kolektiboko asko. Izarok eta Luzek ere bazekiten zer zen zahar-etxe kontserbadore batean amaitzeko izua. Horixe zen etxebizitza kolaboratiboak bultzatzeko izan zuten motiboetako bat; bizitza osoa aktibismoan eman ondoren, ez zuten heteroaraua eta kontrol soziala inposatuko zizkien moja-etxe almidoi-usaineko batean amaitu nahi. Frutaria, arrainduna eta liburuzalea agurtu zituen. Arotzaren ataurrean, kizkur ebaki berria zirudien txirbilak. Txinorkako sukaldean, harrikoa egiten ari zen haur talde bat. Zuastin, bazkaltzen ari ziren artean. Leihotatik diosal egin zioten auzotarrek. Aspaldi zen etxeek zenbakirik ez zutela.

Zubia igaro, eta tren geltokirantz hartu zuen. Rashak agurtu zuen kalearen beste aldetik; konpost gunetik zetorren, lan jantzia oraindik soinean. Emakume hura eta lau seme-alabak hogeitun atzera iritsi ziren herrira, pandemia aroko hirugarren kolapsoan kostaldeko azken hotela itxi eta lanik gabe gelditu zenean. Ez zen bakarra izan. Turismoaren gainbeherak eskualde osoa astindu zuen: kostaldea mamu-herri bihurtu zen, eta jendea ohartu zen ezin joango zela nahi

zuenean nahi zuen tokira. Paralisi behartuak kolapsatu egin zituen asko; joateko entrenaturiko gorputzek ezin izan zioten gelditzearen ideari eutsi. Azelerazioarekin eta elebazioarekin bat eginda zeuden organismoek zapart egin zuten, dotorezia izpirik gabe. «Bide bazterrean jaso ditinat», erakutsi zizkion Rashak arrosa zuri bi. Zerua seinالاتu zuen: «Aurten, portatu dun». Laino xareei begira, aurrera jo zuen Luzek, gogoa bere baitara bilduta.

Urte gutxi lehenago hegan egitea eskubidetzat zutela azaltzen zietenean, barre egiten zuten haurrek. Ume koskorrek abioiarena egiten jarraitzen zuten, zabaldegietan korrika, besoak luze eta zangoak arin, zeruan sekula halakorik ikusi gabeak izanagatik haien arrastoei eta haizearen kilimak bizirik baitzirauten fantasiatzko aireportuetan. Auto-karabanen hilerrietan ere jostatzen ziren haurrak; ume taldeek okupatu egiten zituzten, eta nerabe eta gazteek, autorik ezean, aurreko belau-naldietako familia nuklearren inbertsioen gainean jotzen zuten larrua. *Death-beat* musikaren erritmora dardaratzen ziren. Desagerturiko hots eta ahotsekin egindako konposizioak aparretan zeuden: hegazkinen aiereratzeak, elizetako koruak eta AP-8ko trafikoen ultrasoinuak erritmo organiko motelekin nahasten zituzten. Karabana-nekropoli haietako batzuk migranteen auzo bilakatu ziren. Mundua behin eta berriz hankaz gora jarri zuten birusek inguruari beha jarri zuten ezinbestean gizakia; progresoaren ideia itzulikatu zen, eta hondakinen artetik sortzen hasi behar izan zuten ezinbestean. 2020an, auto hegalarietan ibiliko omen zen biztanleria, baina horren ordeztu Glovoko langileak bizikletan zebiltzan. Ikaragarri garestitu ziren ura, elektrika eta gasa. Izurriek argi utzi zuten zein hauskorrak ziren orduko ekonomia bezalaxe orduko hiriak ere. Ipurdi bistan gelditu ziren ziutateak: ez zuten gehiago bizitzeko balio. Eraginkortasunaren, produktibitatearen eta azkartasunaren parametroetan soilik zuten zentzu apurren bat. Faktore bat aldatu, eta goitik behera erori zen dena. Hiriguneak hustu ahala gainezkatu ziren aldiriak, eta laster hasi zen barrualderako exodoa. Ahal zutenak jaio-terrietara itzuli ziren; aspergarritzat eta urri-kaskartzat jotako herriak birpopulatu zituzten; auzo abandonatuetako tximinietatik ke-hariak ateratzen hasi ziren neguan.

III

Nasaren pareko bankuetako batean eseri zen Luz. Geltokiak Manuel Maria Smith arkitekto bilbotarrak XX. mendearen hasieran emandako



itxura erregionalista mantentzen zuen, estilo neoeuskalduna deitu ziotena, bertako erromantizismoaren sinbolo bilakaturiko euskal baserrietan inspiratua izaki. Bizia zen joan-etorria. Ikasleak ikusi zituen unibertsitatetik bueltan. Estudianteen artean modan jarriak ziren *evasé* erako gonak, mutilen artean batez ere. Gero eta gehiago ziren *gumak*, euren burua genero sexual, artistiko, musikal eta literario askotarikoen nahasketarekin identifikatzen zutenak. Khat zurtoinak murtxikatzen ari ziren bi gazte; gora omen zihoan bertakotutako landare psikotropiko horren kontsumoa. Troiar batzuk jaitsi ziren trenetik, beltzez denak, ohi bezala. Begiratu laburra egin zion haietako zaharrenak. Nasatik irten, eta Luz zegoen aldera gurutzatu zuten trenbidea. Troiar buruzuria atzean geratu zen, dei bati erantzuteko; bolumena igotzeko keinua egiten zuela iruditu zitzaion Luzi. Jakaren papar-hegalak lisatzen zituen ahapeka hitz egiten zuen bitartean. Halako batean, ezpainak mugitzeari utzi, eta oinez jarraitu zuen, Luzen pareraino. «Andrea», esan zion paper mutur bat luzatuz, eta, besterik gabe, gainerako beltzezkoek alde egin zuten bidetik joan zen. Luzek jakaren patrikan gorde zuen papera, eta burdinbideari begira gelditu zen. Urteak ziren troiar batek hitzik zuzentzen ez ziola.

Herriaren eraldaketa hasi zenean, azalekoa izango zela pentsatu zuten gehienek, batik bat estetikoak: zero zaborren kanpaina hura, lehen etxebizitza kolaboratiboaren asmoa, Txokoaldeko tren geltoki zaharra musikarientzat egokitzea, hirigintza feministaren proiektua, auzo ekipamenduarena, Emakumeen Etxea... Baina, berrogeitaka urte geroago, luzea eta porotsua zen iragana. Playboy arkitekturaren leloa hartu –«Gizon bat aldatu nahi baduzu, aldatu haren apartamentua»–, eta auzoaren eskalara eraman zuten aurrena. Ez zen asmo makala: barrioak aldatu, espazioa antzaldatu portaerak moldatzeko. Herria gorputz fabrika gisa ulertu. Urte askoko prozesua izan zen, jende askoren artean egina. Baziren korrante garratz etsiak gizakia taldean inozoagoa dela eta koefiziente intelektuala eskasten zaiola defendatzen zutenak. Ez ziren iritzi berekoak: jendartean norbana-koaren ahalak urardotzen ziren ustea bakarkako lehia desesperatutik baino ezin zen eratorri, autosufizientziaren ameskeriatik, kodependentziaren uko erradikaletik. Desesperazio totala eta esperantza itsua zentzumenekin bateraezinak zirelakoan, osorik konpon ezin zitekeena partzialki konpontzea erabaki zuten: autoak herrigunetik atera eta tren eta autobus zerbitzuak hobetu zituzten, erdigunea asfaltogabetu eta estrata iragazkorrez ordezkatu zuten. Auto elektrikoentzako

aparkaleku bakarra atondu zuten, aldirietan. Plazetatik kendu egin zituzten terrazak. Espazioa besteentzat eta etorkizun zenarentzat irekita uztea erabaki zuten, etorriko zena zer eta besteak nor izango ziren jakin gabe. Etorkizunez, dominazioz eta mesfidantzaz gainez-katuriko eremu bat bizitzaz betetzen tematu ziren. Zurezko eserleku luzeak moldatu zituzten hainbat garaieratan, perspektiba aldatzeko modua izan zezaten herritarrek. Batzuetan goian irakurtzen zuten eta beste batzuetan behean: altuera diferenteetan pentsatzeak go-goaren elebazioa edo apaltzea errazten zituen. Helduek ulertzen ez zituzten jolasetan aritzen ziren haurrak; gazteak plazan biltzen ziren jan-edanera; ilundu arte luzatzen ziren asanbladak. Kaleek ez zuten gatazka ekiditen; bai, ordea, zapalkuntza. Eliza elkargune bilakatu zuten: bertan egiten ziren neguko festak eta batzarrak. Delikatuagoa izan zen frontoiarena, sekula erabiltzen ez zutenek ere atxikimendu sentimentala baitzioten. Azkenean, eta herri-hauteskundeen ondoren, eraitsi eta erabilera librerako gun e bihurtu zuten, 2030ean. Ondoren etorri ziren elkarte gastronomikoen despribatizazioa eta araudi feminista, basogintza intentsiboa debekatzea, eskoletan futbol-zelairik gabeko patioak diseinatzea, iturriak eta bankuak ugaritzea, eta abar eta abar. Guztia zozketa bidez, zeinak abiarazi baitziren teknokraziaren eta populismoen aurka. Haur batzuk aditu zituen, *dona-dona-katona*. Bere eskuei begira gelditu zen Luz. Zaharrak ziren. Kozkorrak atera zitzaizkion erpuetan. Ihes egiten zion likido sinobialak.

IV

Beste bi tren igaro ziren, noranzko banatan. Odeik alde egin osteko depresio sakoneko aldian, zeinean lasaigarri eta loarazle kimikoe-tara itzuli behar izan baitzuen Luzek, bihotz eman nahi izaten zion Izarok: «Bagenekinan batzuek ez zutela eraldaketa jasango. Utopia guztiek dituzten beren biktimak». Lupulu-infusioak prestatzen zizkion, belar bedekatzeko pilulak irentsarazten. Luzek bazekien aditza ez zela *jasan*. Objektua ez zela *biktima*. Alde egiteko pribilegioa izan zutela. Autoak hartu eta joan egin zirela, diruekin eta euren gorputz produktiboe-kin, eskubidetza zutelako suntsiketan sakontzea. Kolpe lehorra zen goizero loaren xalotasunetik errealtatera esnatzea. Ez zuen asko uste bere semeak halako bulkadarik, hartarako beharrik sentituko zuenik. Fidakorregia izan ote zen? Gurasoek, edo ezein mota-ko ahaideek, bi egiteko funtsezko zituztela sinesten zuen: haurrei



autodefinitzen eta erlaxatzen ikasten laguntzea, eta hartarako tresnak ematen saiatzea. Ordea, irentsi behar izan zuen arkitekturak eta are maitasunak ere ez daukatela denerako erantzunik, espazioa –intimoa eta soziala– sor eta molda zitekeela nahierara baina giza kondizioaren bideak, bihotzarenak eta behazunarenak, ezin asmatuzkoak zirela. Talka egiten zutela arrazionaltasun geometrikoak eta giza bulkaden amaraunak. Ahalegindu ziren, ahalegindu zirenez, baina Odeik espero ez zuen noranzkoan autodefinitu zuen bere burua, eta ezin zuen huts egin izanaren sentsazioa gaineratik kendu artilezko jertse bat izango balitz bezala.

«Enfrentamendu biolentoek zamaru egiten dituzten gorputzak; historia behin eta berriz kontatzera behartzen gaituzten», esan izan zion Izarori. Biolentziarik gabeko gizarteak interpretazio akatsak baino ez zirela erantzun nahi izaten zion hark, baina isildu egiten zen, errespetuz. Bigarren pandemiaren ostean gertatu zen: uste ez zutela, gizon taldeak antolatu ziren; haserrea organizatu, eta matxinatu egin ziren herriaren eraldaketaren aurka. Dorpeenek *zikiratu* eta *etxekotu* hitzak erabili zituzten hirigintza feministaren ondorioak deskribatzeko; *genero gardena* defendatu zuten, praktikan ezer aldatu gabe; diskurtso gatopardista bihurriak ugaltu ziren –dena aldatu, ezer ez aldatzeko–; pintadak egiten hasi ziren ortografia akatsekin; baina izan ziren intelektualak, aurrez alderdi ezkertiarretan militatutakoak tartean, hizlari zein idazle onak, gorrotoari errekin eman ziotenak *benetako berdintasunaren* izenean. «Ez gara bonoboak» gisako pintaketek bete zituzten kaleak. Eskualde osora hedatu ziren liskarrak. Zarata egin zuten. Garrasi, tonu grabeetan. Protesta-afixetan giharrak tenk eta makilak eskuan agertzen ziren, bakarka edo aldran. Sofistikatueneak isiltasuna hobetsi zuten armatzat, isiltasuna alaben kontra, bikotekideen eta lankideen kontra. Aurrez aurreko enkontruetan, gorputz jarreraz eta maila diskurtsiboan, bereizezinak bihurtu ziren batzordekide feministengandik, baina sareetan indiferentziaren zartailua eta ironiaren sastakaia dantzatzen zituzten tentsio kreatiboaren aurka. Emakume batzuk batu zitzaizkien; gizon amorratuei beti batzen zaizkie emakume batzuk. Kasu hartan, terrazadun etxeetan bizi zirenak izan ziren gehienak, kontsumo gaitasunean pausoak eman ahala aukera izan zutenean euren partzelatxoa lortu zutenak, norberaren kontrol begetalerako txoko eta guzti; eta gazte batzuk ere bai, luma hetero nabarmena zutenak Luzen eta Izaroren iritzirako, eta gero dena oso azkar jazo zen. Egun batean molotov koktelekin eraso zieten konpostatze-instalazioei,

hurrengoan Emakumeen Etxeko leihoak txikitu zituzten, handik gutxira su eman zieten autobusei, kultur trukerako karpa eraitsi zuten, garbategia hartu zuten indarrez, baratze komunaletan sartu eta errotik atera zituzten tipulak. Luzek, Hiritik At-eko kideekin egindako bilera batetik etxerakoan, beisboleko bate zirtzilatu bat aurkitu zuen Odeiren gelan. Kargu hartu zionean, aurre egin zion semeak: «Ez dut zuen inposaketan sinesten. Bezatu egin nahi gaituzue». Ahotsa goratu gabe esan zion, ia tonu femeninoan; adats luzearen atzean gorde zituen begiak. Gerora egindako ikerketen harira egiaztatu ahal izan zuten auzo eraldatueta, baiki, gorputz erreformak gertatu zirela: boza loditu egin zitzaizela emakume izendatuei eta findu gizon deituei. Gihar-masak ere antzeko bilakaera izan zuen: handitu egin ziren doi bat andreak eta uzkurto, orobat, gizonak. Herriaren anatomiak gorputzen arkitekturan eragiten zuen; birformulatu egiten zituen eraikuntza kulturalak, zentzugabe bilakatzeraino. Baina Odeik ez zekien halakorik, ezin zuen jakin, ikerketa horiek harrezkerokoak ziren; edo akaso intuizioz atzitzen zuen etorkizuna, eta amari leporatzen bere soinaren eta, beraz, errealitatearen moldaketa ustez librean esku hartu izana.

Talde organizatu haietako batzuk herria inguratzen zuten sagar-dotegietan gotortu ziren lehenbizi; turistentzat eraiki eta hutsik gelditutako pabiloi eskergetan biltzen ziren, espazio-ontzien tamainako altzairu herdoilgaitzezko deposituen oinetan. Handik antolatu zituzten ofentsibak. Kokaleku estrategikoa zen; begipean zeuzkaten beti. Une hartara arte, erresistentzia baketsuarekin erantzun zuten herrigunetik; triskatutakoak konpontzen zituzten eta egunerokoari eusten, baina egoera lehertu zen inauteetako festan konpostatzaile-buzoz eta maskaraz jantzitako lau gizonen batzorde eraldatzaileko kide bat indarrez auto batean sartu, Troiara eraman eta bortxatu zutenean. Erantzuna erabatekoa izan zen: elkertasun oldea iritsi zen eskualde osoetik, baita probintzietatik ere. Izaro eta Luz buru-belarri aritu ziren erasoan aurkako koordinakundean. Handik gutxira hasi zen ihesa. *Gizonen exodoa* deitu zioten, nahiz eta ez zuten gizon guztiek alde egin eta alde egin zuten guztiak ez ziren gizonak izan. Menderakuntzarako espazioak eraistean, zaintzarako eta garbiketarako lan txandak ezartzean, zutikako pixatokiak erretiratzean, zerbaitez gabetu zituztela sentitu zuten herritar batzuek, eta, udalak eta batzorde eraldatzaileek apustuari eustea erabaki zutela ikusita, hanka egin zuten. Denbora tarte laburrean, ehun herritar inguru galdu zituzten. Hala ere, gehiago izan ziren bertan bizitzera etorritakoak. Asuna bezala hedatu zen

herriaren sona. Ihes egin ez zuten erreakzionarioak Troiara bildu ziren erretiran. Asfaltozko sarrera zeukan herriko auzo bakarra zen orain. Gizon hura, hirurogeietan sartua, patrikan gorde berri zuen papertxo eman ziona, Odeiren komandokidea izan zen hogeita hamarreko hamarkadan. Luz nasa hutsera begira zegoen orain; laster iritsiko zen mendebaldeko trena. Haietako batean alde egin zuen Odeik, eta ez zen gehiago herrira itzuli.

V

—Sentitzen dinat itxaronarazi izana. Ez dun eroso.

Hitz egin zionerako, Izarok berari begira behar zuen aspaldi. Luz lotsatu egin zen tren geltokira begira zegoen emakume abstraitu bat izateaz. Izarok, besoak bularrean gurutzatu, eta erpuruekin ukitu zituen lepauztaiak. Zeinu hizkuntzan, zain egoteak bazuen berak sentitzen ez zuen izaera solidoago bat, beso gurutzaketaren imintzioak eragindakoa akaso, norberaren soina babesten baitzuen etortzear zenaren presentziatik edo absentziatik. Izarok aipatu izan zion Odeik berari huts egiteko beldurra izan zuela txikitatik. Amari huts egitekoa. Halakoetan itxi egin izan zen Luz, zarratu, eraikin publikoak giltzatzen diren antzera, diskrezioz baina irmo. Erantzun izan zion bere egitekoa zela, seme baten ama feminista gisa, semeari erakustea amaren funtzioa ez zela beraren ordeztutzea, sentimenduen beldur diren gizonek etengabe bilatzen dituztelako euren partez sentituko duten emakumeak, nahiz eta aldi berean mespretxatzen dituzten, hain zuzen, sakonegi sentitzen dutelako. Izarok ez zion ekiten halakoetan; elkarrekin egoteko artea garatua zuten, modu simple eta halaber anbiziotsuan.

Erosketa gurdia tiraka zekarren Izarok. Bizitzaren etapa batetik bestera pisuarekiko harremana nola aldatzen den egin zuen Luzek: besteren gain uzten dute haurrek, bizkarrean eramaten dute gazteek, bultza egiten diote amaberriek, arrastaka garraiatzen dute zaharrek.

—Eztia erosi dinat —esan zion Izarok, pozik, eta poto bat atera zuen gurditik—. No, hiretzat.

Luzek, papertxo askatu, eta eskuak jakaren patrikatik atera zituen, ezti potoari heltzeko. Etxerako bidea hartu zuten.

—Basora joatea pentsatzen ninan —esan zion Izarok—. Lagunduko al didan?

Sukaldetik igaro ziren gurdia huster. Bizkotxo txigortzen ari zen labean. Roberrek paper batzuk errebisatzen ziharduen leiho ertzeko

mahaian. Mendiko zidorra hartu zuten. Fruta arbolen sailean lanean ari ziren zenbait bizilagun. Egurretara joandako haur talde batekin egin zuten topo Amiriko aldan; beteta zekarten eskorga; zikin eta alai zetozen, mukur solteak besoetan. Neskato batek zuhaitz-enborren bati osturiko ardagaia zekarren eskuan. Ibaia zeharkatzean, Izarok Martin arrantzale bat begiztatu zuen zumar baten adarrean, eta birigarroa kantuan ari zela kontatu zion Luzek.

Basoan sartzea iraganeko beldurren oroitzapenarekin topo egitea zen Luzentzat. Izaroren hirian, beste batzuk ziren mehatxuaren espazioak. Etxe-orratz bateko 18. solairuan jaio zen, ziutatea hankapean. Nerabazarora arte ez zuen ezagutu auzo-bizitza. Hirian, jendeak sinesten zuen gizartea zela krudela, babesgabea, elkartasunik batere gabeko eremua, eta, kontrara, etxea jotzen zuen babesaren eta maitasunaren lurraldetzat. Baina, hara non, etxearen eta familiaren aterpe goxoa, intimitatearen altzoan hiltzen zituzten emakumeak, familiako autoan, etxepeko sotoan, garajea. Biolentziaren arkitekturari eskaini zizkion karrerako urteak.

Ikusi baino lehenago sumatu zuten orkatzaren presentzia. Han zegoen, bi ametzen artean lepoa eta belarriak zut, berei begira. Horrelaxe egon ziren lipar batean, tentsio triangularrean. Gero, zirkin bat egin, eta alde egin zuen orkatzak. Elkarri begiratu zioten.

—Aitak ez zidan basoan sartzen uzten. Otsoak aipatzen zitinan, otsoak eta basurdeak. Azerientzako zepoak. Haizete garaian nahi-ta piztutako suteak. Gero, ez naun gogoratzen zehazki noiz eta nola, piztiak sofistikatu egin zitunan, gizon ezezagunen forma hartu arte; gordean sentitzen genitinan edozein arbolaren atzean. Basoa erabat zunan gizonerria; basoko giza arrasto guztiak, zarata guztiak zitunan haiek eginak. Andreak, gehienara, ahabiak biltzen zitiztenan, isil-isilik.

Luzek bazekien alferrik zela Izarori hondeamakinak, Toyotak, ehiztarien erremolkeak, jeepak, motorrak, traktoreak, quadak eta motozerak aipatzea, ezin zuela motor hots hura imajinatu, abusu akustikotik libre bizi izan zela nolabait, nahiz eta sarritan aipatzen zuen «zarata», hiriaren zarata, belarrietatik ez baina gainerako zentzumen guztietatik sartzen zitzaiona.

—Zuhaitzak ere haienak zitunan: insignisak eta eukaliptoak kamioietan etzanda ateratzen zitunan hemendik.

Zitzu bat entzun zuen orduan Luzek, antzemanezina ia, ebakidura bat haizean.

—Orkatzari tiro egin diotela uste dinat.

Harritu egin zuen erreakzioaren bizkortasunak. Animalia ezkutatzen ikusi zuten tokirantz tira egin zion Izarori. Atzetik jarraitu zion, poliki. Argitasuna nabarmen apaltzen zen basoan pixka bat barneratu orduko. Zuhaitz-enborrei heltzen zieten orekari eusteko. Garo artean katigatzen zitzaizkien gonak. Urrats batzuk aditu zituen Luzek, urru-nean. Garrasi egin zien. Silueta bat seinالاتu zion Izarok, zuhaitzen artean.

—Ei! Aizu! —oihukatu zioten.

Bi pertsona ziren, armak eskuetan. Gelditu egin ziren une batez andreei begira, eta berehala aienatu ziren pagadian. Laster jo zuten begiz orkatz zauritua, pago motz baten ondoan. Zangoak tolestuta zutitzen saiatzen ari zen. Bizkarrean jaso zuen tiroa. Orkatz gaztea zen. Hurbildu egin ziren. Hamarkadak ziren Luzek ez zuela tiroz jota-ko animalia baten begirada sentitzen. Aldamenera makurtu zitzaion, eta orkatzak, otzan, gona loratuaren magalean pausatu zion burua. Izarok sama zaurituan ezarri zion eskua, eta hirurek bat egin zuten, animaliak, poliki, begiak itxi zituen arte.

VI

«12:00 Bayonne». Ez zuen papera jakaren patrikatik atera harik eta gauean logelan bakartu zen arte. Inori ezer esan gabe egin zuen goizean tren geltokirako bidea, eta bi aldiz pentsatu aurretik igo zen bagaira. Bazen hamarkada bat herritik irteten ez zela. Fahrenheit 451 kreazio fabrika ikusi zuen, erraustegi zaharraren pabiloi erreformatua. Zubietako makrokartzelak gogorarazi zizkion borroka galduak. Trenak Donostia gurutzatu zuen arte ez zuen soinean zeramatzan arropetan pentsatu; atentzioa emango zuten hirian. Lurrez zikinduriko zapatilei begiratu zien; eskuak gurutzatu zituen sabelaren gainean.

Hitzordua baino hogeita hamar minutu lehenago iritsi zen Baionako geltokira. Arabiera, txinera eta frantsesa bereizi zituen bidaia-rien ahotan. Hirugarren nasara irten zen, oihalezko poltsa pisua eskuan. Jendea azkar igaro zitzaion aldamenetik; «barkatu» esan zion aurpegiarik ikusi ez zion gazte batek euskaraz; musika aditzen zen bozgorailuetatik. Une bat behar izan zuen irteera begiztatzeko. Nasa utzi, eta bigarren arkutik egin zuen aurrera. Desagertuak ziren berarekin batera jaitsitako bidaiariak. Kanpoan, eguzki betea zen. Geltokiaren aurreko zabalgunean, taxiak zeuden aparkatuta; zakur bat zebilen autoen artean alderrai. Parkinaren ondoko plazatxoan





eramateko janaria prestatzen zuten bi saltoki jo zituen begiz. Airean zebiltzan usainak identifikatzen saiatu zen: hirira ohitu gabea zuen sudur mintza. Hautsa, currya, txiza. Lore-hautsa, agian. Goma beroa eta altzairua. Ez zebilen ia jenderik. Beste zakur batzuk bistatu zituen plazaren ertzeko artelatzen enborretan etzanda. Andre heldu bat haur kotxe elektriko baten atzetik oinez. Kaleartera erreparatu zuenean, zakur gehiagorekin egin zuen topo; itzaletara jarrita zeuden, kolore arreko kale-zakurrak, bakarka edo aldran. Ez zen zaunkarik aditzen. Ez zirudien beraren presentziaz jabetu zirenik. Aldaka zabaleko handi bat gerturatu zitzaion, Suitzako boyero arrastoak antzeman uste izan zizkiona. Poltsan gordea zuen sagar bat eskaini zion, eta beraren oin-en arrimura etzanda hozkatu zuen, grina handirik gabe.

Plazaren hegala batetik irristan ikusi zuen. Bat-batean atera zen kale itzaltsutik argitara, taula lebitatzaile baten gainean, lurretik bi arrara. Taula gelditu, eta zoruan pausatu zituen oinak. Uso gris bat zeraman sorbaldan.

—Zu zara Luz, ezta?

Guma bat zen, gaztea; hogeitaz bat urte kalkulatu zizkion. Ezagutzen ez zuen keinu bat egin zion Luzi, hark diosaltzat hartu zuena. Larru-arras moztua ilea, belaunetarainoko zamarra baten azpian gordea soin argala, hazpegi leunak antzeman zizkion betaurreko ilunen atzean.

—Odeiren ustean egongo zinen. Ez da etorriko.

—Pentsatzen dut zu...

—Odeiren ondorengoa naiz, bai.

Senez, eskua luzatu zion Luzek. *Gumak* hartu egin zion. «Kaia», aurkeztu zuen bere burua. Usoak haren jakako patrikatik jateari ekin zion.

—Parisen bizi naiz. Aldirietan. Zientzia eta Teknologia irakaslea naiz auzoan. Espezieen arteko kolaborazioan dihardut.

Usoak bizkarrean motxila ñimiño bat zeramala ohartu zen Luz.

—Zuk *kuidatzen* duzu? —seinalatu zion txoria. Ihes egin zion aitonaren hitzak.

—Erreskate usoa da Ali. Orientazio bikaina du: gai da ehunka kilometrotik usategira itzultzeko, baita laino artean ere.

Usoari erreparatu zion Luzek. Iris laranjaen erdian erne zerabilen nini txikia.

—Toki ona al da Paris?

Galderaren lañoaz lotsatu zen Luz, baina Paris benetan zitzaion leku urruna. Ez zuen asmatu Kaiaren keinua deszifratzen, eta urduritu egin zuen horrek. Poltsa ireki zuen. Izarok oparitutako ezti potoa atera zuen.

—Troiaiko erleek egina da. Emaiozu nire partez, mesedez.

Baiezkoa egin zion Kaiak. Tren geltokira begiratu zuen.

—Norbaitek bizi behar du leku kolpatuetan —esan zion Luzi, eta jauzi arin batez igo zen taula lebitatzailera—. Itzulera bidaia ona opa dizut.

Iritsi bezala desagertu ziren *guma* eta *usoa*. Zakurren ibiliak bete zuen berriz plaza. Bourdeaux, Hendaye, Toulouse. Arkuen gainean izkiriata hiru norako nagusiak. Bere bagoirantz egin zuen Luzek. Trenean eseri zen, oihalezko poltsa hutsa magalean tolestuta. Laster abiatuko zen etxerantz. Donostia zauritua igaro, eta Oria ibaiaren aldamenetik egingo zuen trenak; ordurako, erabat saretuta egongo zen goizeko lanbroa. Aspaldi hildakoen eta oraindik jaiotzeko zeudenen ahotsak gordetzen zituen zingiran barrena igaroko zen. Ihien artean zapatariak eta sorgin-orratzak. Putzuetan lurruna. Begiak itxi zituen. Laster, bera ere eramango zuen urak erriogan behera. Bokaleraino iritsiko zen korrontearen mende, eta arnasa hartuko zuen egunsentiaren aurreko zeru urdin beltzaren azpian.





INSPIRAZIOAK ETA LAPURRETAK

- Almandoz, Koldo. 2018. *Oreina, bitakora kaiera*. Donostia: Txintxua films eta Farmazia Beltza.
- Askoren artean. 2019. *Maitasuna politikoa da*. Andoain: Jakin.
- Artetxe, Miren. 2020. «Zoriontsu naiz nire isiltasunezko munduan», Ainhoa Ruiz de Angulori elkarritzeta.
- Artetxe, Miren. 2021. «Arkitekturan ari denak erantzukizun politikoa du nahitaez», Ula Iruretagoienari elkarritzeta.
- Bachmann, Ingeborg. 2019. Aldibereko. Donostia: Erein & Igela.
- Errekondo, Jakoba. *Bizi baratzea*.
- Esteban, Mari Luz. 2019. *Andrezaharraren manifestua*. Iruñea: Pamiela.
- Ganuza, Ernesto; Mendiharat, Arantxa. 2020. *La democracia es posible*. Bilbo: consonni.
- Haraway, Donna. 2019. *Seguir con el problema. Generar parentesco en el Chthuluceno*. Bilbo: consonni.
- Rozas, Ixiar. 2014. *Beltzuria*. Iruñea: Pamiela.
- Sastre, Pablo. 2007. *Gauzen presentzia*. Donostia: Elkar.
- Lorde, Audre. 1984. *Sister outsider*, «Man Child: A Black Lesbian Feminist's Response».

EGILEAREN ESKER ONA

Ez dago solistarik, akonpainamendua besterik ez. Eskerrik asko AZA-LAko kideei, espero ez nuen tokietara eraman nauen ibai honetan sartzeko gonbitagatik. Futuribleko saioan parte hartu zuten guztiei. Nereari, Daneleri, Mireni, Oihanari, Leireri eta Eñauti, lerrook irakurri eta aberasteko bideak seinalatzeagatik. Anttoni, txorien izenak erakusteagatik. Andresi, lapitza zorroztu eta fabula orrazteagatik. Ingu-ruko ibaiertz eta bidexkei, inspirazioagatik.






ZIRRIBORROAK ETA GERO

Zirriborroak eta gero alternatiba eta utopien etorkizuna irudikatzen duten ipuin laburren bilduma da. «Ibaia» kontakizunean, Uxue Alberdi idazleak genero-ikuspegidun hirigintzaren ondorio eraldatzailea irudikatzen du. Horretarako, Usurbilen garatutako saiakuntzetatik abiatzen da, HAPOn (Hiri Antolamendurako Plan Orokorra) berrikuspenetik eta Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitariotik, besteak beste.

Usurbilgo hirigintza feminista. Usurbil herrian martxan dago HAPOn ikuspegi feminista txertatzeko plana. Herri-ereduen inguruan dituzten desio eta beharrez gogoetatu dute biztanleek, eta genero-arrakalaren aurrean hirigintza-ereduak dituen erronkak identifikatu dituzte. Besteak beste, segregazioa, mugikortasuna, zaintza, merkataritza txikia, eta haurren, gazteen eta zaharren beharrak hartu dituzte kontuan bizitzari erantzungo dion arkitektura bat pentsatzeko. Arkitektura feministari lotuta ari da garatzen Txirikorda belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioa ere, egungo etxebizitza ereduak eta haren prezioek ezarritako mugen kontra, 30 urtera arteko gazteentzat eta 60tik gorako pertsona autonomoentzat habitagarria izango den etxea proiektatzeko.



Uxue Alberdi Estibaritz. (Elgoibar, 1984). Idazlea eta bertsolaria da. Bi ipuin-liburu (*Aulki bat elurretan*, Elkar, 2007; *Euli-giro*, Susa, 2013), bi nobela (*Aulki-jokoa*, Elkar, 2009; *Jenisjoplin*, Susa, 2017) eta kronika literario bat (*Dendaostekoak*, Susa, 2020) idatzi ditu. Haur-literaturan hainbat lan ditu argitaratuak; haien artean, *Besarkada* (Euskadi Saria 2016). Alfonsina Storniren poemak itzuli ditu euskarara, eta zenbait irakurle talde gidatzen ditu. *Kontrako eztarritik saiakerak* Saiakerako Euskadi Saria jaso zuen 2019an. Bertsolaritza eta feminismoa uztartzen dituzten hainbat proiektutan parte hartzen du; besteak beste, *Ez da kasualitatea* bertso-saioetan eta Ahalduentze bertso-eskolan.

Zirriborroak eta gero **Azala** egonaldi artistikoak garatzeko espazioan sortua da, Lasiera herrian, Araban kokatua dagoen 12 biztanleko herrian hain zuzen, artadi baten mendi magalean. 2008an abian jarri zenetik, lankidetza mota anitz sustatu ditu beste erakunde kulturalekin, eta lotura gero eta estuagoa egin nahi du inguru hurbilean egiten diren jarduerekin. Fabula hau sortzeko, Azalak «Futurible» saio bat antolatu zuen, bideokonferentzia bidez, 2021eko urtarrillaren 11n, etorkizun batean zer gertatu daitekeen ikusteko.



GURE ESKER ONA

Mila esker proiektu hau lantzeko denbora, ilusioa eta indarra oparitzen diguten guztiei.

Gipuzkoa #1 honetan, eskerrik asko Uxue Alberdi, Paula Estévez, Oihane Ruiz Menéndez (Silvestrina S. Coop), Karlos Renedo (Hiritik at), Nora Erdozia (Usurbilgo Udala) eta Unai Pascuali. Beste hainbat laguni eskerrak ematen dizkiegu proiektuan parte hartzeagatik eta «Futurible» saioan gurekin batera egoteagatik: Argitxu Aguerre, Ana Almandoz, Edurne Eizagirre, Maite Fernández, Irene Intxausti Basilio (Teklak), Ainara Iñiguez, Ula Iruretagoiena, Michela Lamedika, Jone Miner, María ptqk, Anne-Françoise Raskin, Leire San Martin, Maite Telleria (Azala), Koldo Telleria Andueza (DUNAK Taldea) eta Saioa Zuazubizkar.

GIPUZKOA BILDUMA #1

2.300 aleko edizioa. Gipuzkoako hainbat taberna eta iragate-tokitan lor daiteke. Irakurri ez ezik, narrazioa aditzeko aukera ere badago, zirriborroaketagero.net webgunean.